



CONAMA SARIA JASO DU TOLOSAK

Udal txiki eta ertainen ekimen jasangarriak baloratzen dituzte; 'Tolosa Oinez' proiektuarengatik eman diote >2

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Larunbata
2009-12-05**

VIIURTEA 1.845 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Atzo eman zituzten Tolosako udaletxean obren egoerari buruzko azalpenak. I.T.

KOLEKTOREAREN LANAK BUKATZEAR

TOLOSA 2010 urteko lehen hiruhilekoan amaituko dituzte; kanalizazioak eginda daude, eta zortzi putzuetatik bost erabat bukatuta; bialak bi noranzko eta aparkalekua izatea ari dira aztertzen >2

Ziklo-Kros proba, hilaren 8an, Aiztondo Txirrindulari Elkarteak antolatuta

ASTEASU Nazioarte mailako proban aurten lehen aldiz junior mailakoak ariko dira; elite, Sub-23, kadete eta neskak ere lehiatuko dira >4

**Manifestazioa
egin dute
«eskualdean
eman den
errepresioa
salatzeko»**

TOLOSA Atzo iluntzean egin zuten Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deituta >7



Atzoko manifestazioko une bat. A. IMAZ




Juan Jose Ibarretxe, herenegun Kasinoan. I.T.

Ibarretxe: «PSOEek eta PPK EAJ bota nahi dute eta polo subiranistak, berriz, ordezkatu»

TOLOSA Hitzaldia eman zuen herenegun Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakari ohiak >2

Belabietan Kirol Astea izango da hilaren 12tik 20ra

IBARRA Erabili nahi duten guztien eskura jarriko dute kiroldegia; ekintza ugari antolatu dituzte >7



*Proba ezazu
gure baserriko
haragia*



5 Kg-ko sorta 58€tan (banaketa DOAN)
Xerrak (hiru mota), haragi xehea, saiheskia, zankarra, gisatua, txuleta.

**Egin eskaria
eta etxera eramango dizugu:**

943-30 43 32 (ordutegia: 9:00-17:00) edo saski@lurlan.org

Dendak: Boulevard 7 eta San Martin merkatuko C4 postuan (Donostia)

Ur saneamenduaren kolektorearen obrak azken fasean sartu dira

Azpiegiturak » 2010eko lehen hiruhilekoan amaitu nahi dituzte lanak; bialak bi noranzko eta aparkalekua izatea aztertzen ari dira.

ERREDAKZIOA

Duela urte eta erdi hasi ziren, eta geroz eta gutxiago geratzen da herriko hainbat gunetan eragina izan duten kolektorearen lanak bukatzeko. Atzo egin zuten Tolosako udallexean lanen nondik norakok emateko agerraldia, eta kanalizazio guztiak eginda daudela, eta zortzi putzuetatik bost erabat bukatuta eta itxita daudela esan zuten. Halaber, Jokin Bildarratz Tolosako alkateak lan honek izango duen eragina nabarmendu zuen, «ibaierentzat oso garrantzitsua izango baita egiten garen esfortzua, eta herritarrei ere eskerrak eman nahiko nizkieke, hainbat



Tolosako udallexean eman zuten atzo obren nondik norakoak berri...r.

unetan jasan behar izan dutenarengatik».

San Frantzisko eta Foruen etorbidearen arteko elkargunea, Araba etorbideko putzua, Amarotz auzoko, Berazubikoa —laster zonako hustubidea kolektore orokorrari lotuko zaio— eta garai bateko Igarondo igerilekuetakoa dagoeneko amaitu dituzte.

Beraz, lan osoa amaitzeko geroz eta gutxiago geratzen da, proiektuaren azken faseko obra osagarriak datorren asteazkenean hasiko baitituzte. Barrena kalean gainezkabidearen konexioak eta ibairako irteera egiteko, beharrezkoa dela Belate kalea trafikoari ixtea azaldu dute, eta hori hilaren 9tik 11ra egingo dute.

Egun horietan trafikoera era horientara antolatuko dute: Larramenditik Belate aldera, Rondilla kalearen luzapenetik (Lapurdi plaza) joan ahalko da. Rondillaren luzapenean dagoen garajearen sartzeko, Kale Barrenetik hartu behar harko da. Aparkalekuaren behin betiko sarbidea hori izango da aurrerantzean. Bestalde, Belatetik herriaren erdialdera jotzeko, Jesusen Zerbitzarien atzetik atera ahalko da Rondilla kalea. Gainera, orain arte bezala, kamioi astunek debekatuta izango dute bertatik igarotzea.

2010eko lehen hiruhilekoan lanak amaituta

Bestalde, datorren ostegunean, hilaren 10ean, Trianguloko gainezkabidearen estalkiak jartzeko, San Frantzisko kalea itxi egingo dute. Lan hori gauzez egingo dute, 22:00etatik 04:00etara, «eragozpen gutxiago eragiteko».

Beraz, Ura Uraren Euskal Agentziak eta Tolosako Udalak azaldu-takoaren arabera, «kolektorearen obren azken zatian sartuta gaude». Aurreikuspenen arabera, Eguberrietarako irekiko zaio trafikoari Barrena kaleari eta Rondilla kaleari dagokien putzua. Lan horiek bukatzen direnean, urtarriaren zonaldeko urbanizatzeko lanei helduko diete. Obra horiek datorren urteko lehenbiziko hiru hilabeteetan bukatzea espero dutela adierazi dute.

Era berean, Eguberrietarako, Trianguloko putzua egokituko dute eta horrek itxitura murriztea ekarriko du, eta ondorioz, espazioa irabaztea ibilgailuentzat eta oinezkoentzat. «Urtarriaren bukaera aldera putzu hori erabat bukatuta egongo da eta Triangulo plazak bere espazio osoa berreskuratuko du», azaldu dute gaur eginiko obren azalpenean. Halaber, Lizardi plazako (Patinetako plazako) putzua ere, urtarriaren bukaera aldera amaituta egotea espero dute.

Bestalde, biala bi noranzkoetan eta aparkalekuekin jartzea ari da aztertzen Udalak, eta Zumalakarregi kalea oinezko eta autoentzat.

'Tolosa Oinez' proiektuarengatik Conama saria jaso du Udalak

Jasangarritasuna

Conama sariaren helburua udal txiki eta ertainen ekimen jasangarriak baloratzea da.

ERREDAKZIOA

Tolosako Udalak Conama saria jaso du *Tolosa Oinez* proiektuarengatik Sevillan (Espainia) egindako Garapen Iraunkorraren Jardunaldietan. Conama sariaren helburua udal txiki eta ertainen ekimen jasangarriak baloratzea da. Tolosak 5.000 eta 30.000 biztanle arteko herrien mailan jaso du saria. Yurre Peñagarikano Agenda 21eko zinegotziak jaso zuen saria.

Tolosa Oinez proiektuak lau eremu lantzen ditu: mugikortasun jasangarria, energi aurrezpena eta



Yurre Peñagarikano zinegotziak jaso zuen saria. HITZA

efizientzia, klima aldaketaren aurkakako udal aktuaizak eta CO2ko hustubideak. Peñagarikanok

proiektuak aurkeztu zuen Garapen Iraunkorreko Jardunaldietako parte-hartzaileei.



Tolosa Gourmet Gastronomian

GASTRONOMIA » Tolosa Gourmet ekimenak Donostian egindako Gastronomika azokan parte hartu du. Bertan erakusmahaia jarri du eta Tolosako lau sukaldaririk hitzaldia eman zuten: Mireia Careceler (Illargi Delicatessen), Roberto Ruiz (Fronton jatetxea), Matias Gorrotxategi (Julian erretegia) eta Pedro Ruiz (Nicolas erretegia). Bestalde, Fronton jatetxean 140 lagun bildu ziren herriko hainbat sukaldaririk prestaturiko Tolosa Menu Berezia dastatzeko. HITZA

U Urteurrenak

I. urteurrena
**MARIA CRUZ
PEÑAGARITANO OLAIZOLA**



Bihar, igandea, 12:00 tan San Pelayo elizan bere omenez meza izango da.

ZARAUTZ
2009ko
abenduren 5a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Azpiazu eta Uzkudun Espainiakoan aritu dira

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko IKTko bi igerilari Espainiako Txapelketan izan berri dira, Ion Azpiazu 50 metro estilo librean eta 4X50 estilo librean eta Pablo Uzkudun 200 metro bizkarrez. Ion Azpiazuk Barduliako taldearekin batera brontzezko domina lortu zuen 4x50 metro libre estiloan. Azpiazuk erakutsi zuen Madrilen %100ean entrenatzen jarraitzen duela Jon Camusekin. Pablo Uzkudunek 2:03:13 egin zuen 200 metro bizkarrez. Denbora oso ona da, Igeriketako Euskal

Federazioaren hirugarren marka hoberenalortu baitu.

Tolosako Usabal kiroldegian Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketa antolatu du Tolosaldeko IKTk hilaren 19 eta 20rako. Bertan euskal igerilari onenak aritu dira. Tolosaldeak bai gizonezkoetan bai emakumezkoetan talde bana aurkeztuko du txapelketan.

Bestalde, eskola mailako alebilen eta benjaminen ligaren lehenengo jardunaldian, Hernanin, Tolosaldea taldeko 24 igerilarik parte hartu zuten.



Benjamin eta alebin mailan Hernanin parte hartu zuten igerilariak. HITZA



La Mouette musika banda Tolosan izan zen maiztean. R. CALVO

Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestraren emanaldia Landetan

ERREDAKZIOA

Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrak kontzertua emango du Landetan, bertako Lit et Mixe herriko La Mouette musika bandarekin duten elkartrukea medio. Laguntzarik ez dutela jasotzen eta kontzertuak emateko aukera elkartrukeak direla azaltzen dute Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestratik.

Kontzertua gaur izango da, 18:30ean, Lix et Mixe herriko gela balioaniztean eta Zezili Deunaren omenez izango da emanaldia. Tolosatik 25 lagun joango dira emanaldia egitera.

«Normaltasuna» Ibarretxek egungo Jaurlaritzak «etengabe» ahotan duen «normal-



Joseba Egibar, Xabier Arzallus eta Jokin Bildarratz lehen lerroan. Eskuinean, Juan Jose Ibarretxe. I.T.

Ibarretxe: «Hautestontzien aurka jaiotzen diren gobernuak hautestontzietan bukatzen dira»

Tolosa » EAEko lehendakari ohiaren esanetan, EAJ bota nahi dute PPK eta PSOEek eta polo subiranistak, berriz, ordezkatu.

IÑIGO TERRADILLOS

Duela zazpi hilabete Eusko Jaurlaritzako lehendakari kargua utzi zuenetik lehen agerraldi publikoa izan zuen Juan Jose Ibarretxek Tolosako Kasinoan herenegun. 300 lagun ingururen aurrean *Konpromiso politikoa: aukera bat, behar bat, betebehar bat* hitzaldia eman zuen, Uzturre Fundazioak antolatutako jardunaldien baitan. Bertan izan ziren, besteak beste jardunaldietan parte hartu duten Xabier Arzallus, Markel Olano eta Joseba Egibar. Bezperan zendu zen Luis Mari Bandres alderdikidearen omenez minutu bateko siltasuna egin ostean, ekin zion hizketaldiari. Gaiarekin hasi aurretik, «maitatua» sentitzen dela esan zuen, «euskaldunen aldetik jasotzen duen babesa» eskertuz.

«Normaltasuna» Ibarretxek egungo Jaurlaritzak «etengabe» ahotan duen «normal-

tasuna» kritikatu zuen: «Espainiako ezkerria eta eskubiak bat egiten dute euskaldunak altxatzen direnean, eta hori zilegi dela diote, normaltasunaren irudi». Hala, Estatutu Berriaren proposamena «inola ezbaidaririk gabe» atzera bota zutela argudiatuz, «izaera demokratiko eskasa» izatea leporatu zion Espainiako Gobernuari.

Zailtasunak zailtasun, guk gurera

EAJk bere bidea jarraitu behar duela argi du Ibarretxek: «Guk gurera jarraitu behar dugu, zailtasunak zailtasun, izan ere, alderdi sozialistaren eta alderdi popularraren transbertsalitateak baztertu egin nahi gaitu, eta polo subiranistak, berriz, ordezkatu». Ibarretxeren esanetan, «PSOEek eta PPK printzipio demokratikoa, hau da, herri baten existentzia eta gure erabakizeko eskubidea ukatzen dute». Polo subiranistari, berriz, abiarazi ahal izateko ETArI amaitzeko esatea falta zaiola uste du.

Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakari ohiaren arabera, «EAJ da herri honen liderra, gobernuan egon ala ez, gure esku dago». Halaber, «hauteskundeak

EAJk irabazi zituela ez da ahaztu behar», gogorarazi zuen, eta «hautestontzien kontra jaiotzen diren gobernuak hautestontzietan amaitzen direla».

Gatazkaren konponbidea

Gatazkari bi irtenbide posible ikusten dizkio Juan Jose Ibarretxek: «Emozioa eta azken finean biolentzia edota emozioa kanalizatzea arrazoi erabiliz elkarriketarako, eta akordioak lortzeko». Bere ustez biolentzia erabiltzea «humanitate eta kultura demokratiko falta handia da, talentu falta izugarria, giza kaskarkeria». Irtenbiderako bidean gizartearen parte-hartzea ezinbestekotzat jotzen du, konpromisoak «herriar guttiena» izan behar baitu, baina «aukera dugun arren», hau ez dela betirako esan zuen.

Uzturre Fundazioak antolatu dituen jardunaldiek Jose Maria Txato Agirre, Mikel Atxaga, Gorka Agirre eta Begoña Revuelta omentzea ere izan dute helburu. Juan Jose Ibarretxek esker hitzak izan zituen beraientzat, baina bereziki Begoña Revueltaentzat izan zituen, 27 urtez bere idazkaria izan baitzen.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Su egurra.** Su egurra salgai. 20, 30 eta 40 zentimetrotara moztua. Etxera eramaten dugu. Harremanetarako telefono zenbakia: 615 75 57 62.

LANA

■ **Kafetegi-okindegi baterako.** Tolosako kafetegi-okindegi batean pertsona bat behar da arratsaldean egiteko. 25 urtetik gorakoa

izatea eskatzen dugu. Harremanetarako: 661 463 193.

■ **Bigi Garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Gurutze: 638 94 46 04. Belen: 695 70 82 71.

■ **Okindegi baterako.** Tolosan, as-teburuetan okindegi batean lan egiteko neska euskaldun bat behar dugu. Harremanetarako telefono zenbakia: 665 72 79 29 (Eider).



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Nazioarteko Ziklo-Kroseko irudi bat. I. GARCIA

Asteasuko XI. Nazioarteko Ziklo-Kros proba prest dago

Asteasu » Abenduaren 8an Elizmendi Auzoan jokatu da. 13:45ean hasiko da eta Elite eta Sub-23koen saioa 15:45ean izango da.

ENERITZ MAIZ

Abenduaren 8an, asteartea, Asteasuko XI. Nazioarteko Ziklo Kros proba izango da. Jada hamaikagarraren urtez antolatu du Aiztondo Txirrindulari Elkarteak. Elkarteko kide den Ramon Ayerzak duela 4 hilabete hasi zirela guztia prestatzen azaldu du. Aurten lehen aldiz, juniorren lasterketa ere Nazioarteko izango da. Eta hauerz gain, Elite eta Sub-23koak, kadeteak eta neskak ere lehiatuko dira.

Aurten, Elite eta Sub-23koen lasterketa Euskal Telebistan zuzenean ikusteko aukera izango da. Hori dela eta, ordutegia egokitu egin behar izan dute. Kadete eta neskak, 13:45ean hasiko dute beren saioa eta gutxi gorabehera 30 minutuko izango da. Jarraian, juniorren txanda izango da eta hauerz 14:30ean hasiko dira. Junio-

ren kasuan 45 minutuko lasterketa egiten dute eta 15:45etik aurrera Elite eta Sub-23koena hasiko litzateke. Azken hauek ordubetea egiten dute. «Epaileek zehazten dute zenbat itzuli eman behar dituzten lehen bi itzulietan egiten duten denbora kontuan izanda», azaldu du Ramon Ayerzak.

Eguraldi txarra izaten ohituak daude eta jada ez diote garrantziarik eman eguraldiari. Ibilbidea, gaur prestatuko dute eta egunean bertan 50 edo 60 lagun bilduko dira guztia ongi atera dadin. Parte-hartzaileei dagokionean, Sven Nys eta Bart Aernouts belgikarrak, Er-

win Vervecken, Sven Vanthourenhout eta Klaas Vantornout flandiarrek izango dira. «Hasiera batean Niels Albert 23 urteko belgikarra etortzekoa zen baina azken orduan atsedena behar duela eta ez da etorriko. Pena izanda egungo Munduko Kopako liderra ez izatea» gaineratu du.

Laguntza ekonomikoaren inguruan hauxe azaldu du: «Herriko merkatariak, zenbait enpresa, Asteasuko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzak izan ditugu». Ibilbidea ikusi ahal izateko sarrera 3 euroren truke eskuratu ahal izango da.

» ASTEASUKO XI. NAZIOARTEKO ZIKLO KROSSA

Zenbait datu

- **Non.** Elizmendi auzoan.
- **Mailak.** Kadeteak eta neskak, juniorrak eta Elite-Sub-23.
- **Noiz.** Kadete eta neskak, 13:45ean, juniorrak 14:30ean eta Elite eta Sub-23ak 15:45ean hasiko dira hurrenez hurren.
- **2610 metroko ibilbidea.** 423 metro errepidean, 187 metro bidean eta 2000 metro zelaiean.

Parte-hartzaileak

- **Kanpotarrak.** Sven Nys, Erwin Vervecken, Sven Vanthourenhout, Klaas Vantornout, Bart Aernouts.
- **Euskaldunak.** Javier Ruiz de Larrinaga, Egoitz Murgoitzi, Unai Yus, Erlantz Uriarte eta David Seco.
- **Estatutik.** Isaac Suarez eta Tino Zaballa.

Laburrak

Gabonetarako begirale bila dabil Udala

ANOETA • Anoetako Udalak, Gabonetan umeekin irteerak egin nahi ditu Txiki-Park eta Txuri-Urdinera. Abenduaren 23an eta 29an goizez izango lirateke eta horretarako begiraleak behar ditu. Begirale izan nahiez gero, 18 urte baino gehiago eduki behar dira. Interesatuta egoz gero, izena udaletxean edo kiroldegian eman behar da abenduaren 15a baino lehen.

Gaztain jatea plazan Aht Gelditu Elkarlanak deituta

ANOETA • Gaur 17:00etatik aurrera, Anoetako AHT Gelditu Elkarlanak, gaztain jatea antolatu du herriko plazan. Honekin batera, Abiadura Handiko Trenaren proiektuak izan dituen aldaketa berriak ikusteko aukera izango da. Bertan, planoak eta panelak egongo dira ikusgai.

Olentzero eta errege egunak prestatzeko bilera

IRURA • Eguberriak gerturatu direnez, Udalak, aurten ere Olentzero eta Errege Magoak Irurako plazara etorriko direla jakinarazi nahi izan du. Merezki duten adinako ongietorria, guztien artean hobeto prestatu ahal izateko guraso guztiak gonbidatu nahi dituzte. Abenduaren 10ean 19:00tan udaletxean elkar-tuko dira. Bestalde, abenduaren 10ean bertaratu ezin duten gurasoei udaletxean eta liburutegian laguntzeko izena eman dezaketela gogorazazi nahi diete.

Idiak, garo metak eta uztarriak erakusketan

ALKIZA • Abenduak 5, 6, 7 eta 8rako muntai audio bisuala eta argazkiak prestatu dituzte eta baita uztarriak ere. Ildiak, garo metak eta uztarriak izan dira Kultur txeko erakusketaren ardatz. Gaur eta astelehenean, 17:00etatik 20:00etara ikusteko aukera izango da. Bihar 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara eta asteartean 11:00etatik 13:00etara.



Euskararen eguna ospatzen

VILLABONA-ZIZURKIL • Atzo Euskararen eguna zela eta ekintza ezberdinak antolatu zituzten. Jesusen Bihotzako haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikasleek Argitxoren bisita jaso zuten. Jolasean aritu ziren eta «primeran» pasa zuten. Ikasle bakoitzak, ikastolako pasiloetan jartzeko euskararen aldeko marrazki eta esaldi politak idatzi zituzten. Arratsaldean erromeria izan zen eta txokolate beroa banatu zieten. DBHko ikasleak, euskarakoan aritu ziren eta *Berri ona* filma ikusi zuten. HITZA

<p>SOLAGÜEN 2004. urteko ERRESERBAko ardoa</p> <p>6 botilako kutxa 60€</p> <p>12 botilako kutxa 72€</p> <p>SOLAGÜEN 2005. urteko ardo ONDUA</p>	<p>REMELLURI 2005. urteko ERRESERBAko ardoa</p> <p>3 botilako kutxa 40€</p> <p>6 botilako kutxa 80€</p>	<p>BRUT NATURE MAINEGRA</p> <p>MENDIABIAKO CAVA Mahats motak: %50 vitiza, %35 parellada, %15 chardonnay. LIKETAN ONDUA: Hogei hilabete baino gehiago. AUREREN OROZKUR: Bolumenaren %10 gutxi gorabehera.</p> <p>6 botilako kutxa 39€</p>
---	--	--

MIRARI Parafarmazia

- HAURREN ELIKADURA ETA HIGIENA
- HELDUEN EDERTASUNA ETA HIGIENA
- HAURREN ETA HELDUEN DERMOKOSMETIKA
- HAURRENTZAKO JOSTAILUAK

Kale Berria, 56 • Billabona • Tel.: 943 692 351 • parafarmazia.mirari@telefonica.net

Erosi berriaren plazan

EUSKAL HERRIKO PRODUKTUAK

azken egunak

943-30 43 45
www.berria.info
harpidetza@berria.info

Alfar La Maja

6 botilako kutxa
15€-1
36€

saskia!

ALKIZEN EZAZU, BIZI ERRESERBAZ
berria

Bidalketa gastuak doan

TOLOSAKO LASKORAIN IKASTOLAK LANGILE HAU BEHAR DU

Fisikan, Matematikan edo Ingenieritzan lizentziatua Derrigorrezkoak EGA eta FIRST tituluak gutxienez IKTak: "Autocad" eta "Solid Edge" programetan trebatua gutxienez

Curriculumak e-mailez bidali behar dira tolosa@ikastola.net helbidera. Jasoko diren azken eguna, abenduaren 11.



"Euskal kulturaren erabilera
guztitan oinarrituta izatea helburu
duen bide orria."

"La hoja de ruta que quiere convertir
en costumbre cotidiana el uso de la
cultura vasca."

"La feuille de route qui veut changer
en coutume quotidienne l'usage de la
culture basque."



**erein ezazu...
zure, gure, denon kultura.**

Durangoko Azoka

«Eskualdean eman den errepresioa» salatzeko manifestazioa egin dute

Tolosa » Iluntzean abiatu zen manifestazioa; «Euskal Herriko zein Tolosaldeko jazarpenak» bukatzeko eskatu zuten.

ERREDAKZIOA

Jende asko hartu zuen parte atzokoan Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deitutako manifestazioan.

19:30ean abiatu ziren Tolosako Triangulo plazatik «azkenaldian eskualdean eman den errepresioa» salatzeko.

Pasa den egunetan eskualdeko hautetsi independentistek, Etxerate eta Tolosaldeko Gazte Mugi-



Jende asko bildu zen «egoera errepresiboari stop» esateko. A. IMAZ

menduek ere bat egin dute manifestazioarekin.

Gazteen azken atxiloketak gogoratu

Atzoko manifestazioaren xedea «egoera errepresibori stop» esatea izan zen. Besteak beste, azaroaren 24an izandako gazteen atxiloketak gaitzetsi zituzten, non Tolosako Aritz Lopez, Villabonako Mikel Aiestaran eta Amezketa Irati Mujika ere atxilotu eta espetxeratu zituzten.

Honekin batera, Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak Villabonan «aurtengo urteak marka guztiak hautsi» dituela esan du. «Kalez jantzitako polizien presentzia itogarria izan dugu, errepi-

de kontrolak eguneroko ogia bilakatu dira billabonatarren zatia eta zenbait billabonatar kide ziren zerrenden legez kanporatu dituzte, Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan», nabarmendu du. Azken «erasoen aurrean» Villabonako AAMK «gure herria ukatzen duten indar okupatzaileak Euskal Herriatik joatea eta errepresaliatu politikozko amnistia exijitzen dugu».

Paroak ikastetxeetan

Era berean, pasa den asteartean egin bezala, Tolosako Ikasle Abertzaleak-ek deitutako geldialdia egin zuten hainbat ikaslek herriko ikastetxeetan «Euskal Herriak pairatzen duen errepresioaren isla den aurreko asteetako atxilotuei babesa helarazteko».

Geldialdia 12:00etan izan zen eta hori bukatuta, 12:30ean, manifestazioa egin zuten Triangulotik abiatuta.

Kirol Astea egingo dute Belabietan hilaren 12tik 20ra

Ibarra » Kirolegia «erabili nahi duen guztiaren eskura» jarriko dute datorren larunbatetik aurrera.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Belabietako kiroldegiko arduradunek, Kirol Astea antolatuta dute datorren asterako.

Hilaren 12tik 20ra iraungo dukirolari eskaintako astea eta helburua «Kirolegia erabili nahi duenaren eskura» jartzea dela nabarmendu dute.

Kirolak

Aurtengo Kirol Astea hauek izango dira aukeratu dituzten kirolak: xakea, areto-futbola, motorra, gimnastika erritmikoa, pilota eta mahai-tenisa.

Hilaren 17an, gainera, herriko kirolariak omenduko dituzte 20:00etan Udaletxeko Pleno Aretoran egingo duten ekitaldian. Datorren egunetan argituko dute zein kirolari omenduko dituzten.



lazko Kirol Astearen ere mahai-tenisen aritzeko aukera izan zen. HITZA

» EGITARAUA

Hilak 12, larunbata

■ **16:00.** Xakeko Banakako Gipuzkoako Txapelketa, partida azkarretan, Kirolegian.

■ **16:00.** Ereiteren Aretoko futboleko mundialitoaren finalaurdenak Kirolegian.

Hilak 13, igandea

■ **10:00.** Gipuzkoako xake taldeen txapelketa Kirolegian.

Hilak 17, osteguna

■ **20:00.** Herriko kirolarietako omendua Udaletxeko Pleno Aretoran.

Hilak 18, ostirala

■ **17:30.** Ibarra Ragingeko Koldo Alonsok, Marcos Landak eta Jon Maritxalarrek euren materiala erakutsiko dute herriko plazan.

■ **17:30.** Ibarrako Belabietako gimnastika erritmikoko taldeko gimnasten erakustaldia Kirolegian.

■ **17:30.** Ibarra eta Tolosako eskolen arteko hiru pilota partida Kirolegian.

Hilak 19, larunbata

■ **10:00.** Gazteei zuzendutako mahai-tenisa Kirolegian.

ONA txartela egiteko aukera, hil honetan

Leaburu-Txarama

Hilaren 4an, 11n eta 18an egin ahal izango da Leaburuko KZgunean goizez eta arratsaldez.

ERREDAKZIOA

Leaburu-Txaramako Udalak argitu duenez, hilaren 4an, 11n eta 18an ONA (Osasun Nortasun Agiria) txartela egiteko aukera izango da Leaburuko Maria Luisa Agirre

kultur eta osasun zentroaren KZgunean. Orduetgia honakoa izango da: 09:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Txartela egin nahi dutenek Osasun Txartel Indibiduala (OTI) eta NANA aurkeztu beharko dituzte.

ONA txartelak OTIa ordezkatuko du eta Osakidetzarekin tramiteak online egitea ahalbidetzaez gain, errenta aitortpena egiteko eta gidabaimeneko puntuak kontsultatzeko aukera ere eskaintzen du, besteren artean.

Lauburu Orkoienek kontra ariko da, gaur

ERREDAKZIOA

Ibarrako Lauburu taldekoak Orkoienek (Nafarroa) dute gaurkoan partida 18:00etatik aurrera. Lauburuko jokalariek guztiak daude jokatze moduan eta honenbestez

orain arteko garaipen boladarekin jarraitzeko aukera dutela uste dute.

Orkoienek joateko autobusa 15:30ean aterako da Euskadiko Kutzaren parekin.

**90 URTE BERRITZEN.
90 EGUN PREZIO HISTORIKOEKIN.**

APROBETXATU EZAZU UNE HISTORIKO HAU 2000E PLANAREKIN

SEGURTASUN OSOKO PLANA:

Artikulu orotarako aseguru zure Citroen berria, errekareru eta interesik gabeko eta langabezi estaldura opari

GOZATU BAITA ERE C4, C4 PICASSO ETA C5 MILLENNIUM EREDUEN SERIE BEREZIAN. MYWAY NABIGATZAILEAREKIN.

CITROËN XSARA PICASSO HDi 12.800€etik

www.citroen.es

CITROËN

IROVI, S.A. KONZESIONARIO OFIZIALA CITROËN. INDUSTRIALGUNEA Z/G. • TEL.: 943 65 18 42. ANOETA / TOLOSA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendariak: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@irragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 034. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kirola

■ **Tolosa.** Whusu Danda konbateak Beotibar pilotalekuan 23:00etan.
■ **Tolosa.** Pilota partida profesionalak Beotibar pilotalekuan 16:30ean: Olaetxea-Eskudero Cabrerizo II.a-Urberuagaren aurka; Olaizola II.a-Peñagarikano Xalalaskurainen aurka; eta Argote Urrutikoetxearen aurka.
■ **Tolosa.** Material berri eta 2. eskuko mendiko merkatu txikia Oargi mendi elkartean. Astelehenetik Ostiralera 18:00etatik 21:00ak arte, asteburu eta jai egunetan 10:00etatik 13:00ak arte eta 16:00etatik 21:00etara. Bigarren eskuko materiala eraman daiteke hilaren 16tik aurrera, astean zehar 19:00etatik aurrera elkartera. Informazioa, 688 698642 telefono zenbakian.

Titirijai

■ **Tolosa.** 11:30ean eta 17:00etan Topic-en Quebec-eko Theatre des petites ames taldearen *Pekka*; 12:00etan Kultur etxean Portugalgo Shakespeare Women Company taldearen *La tempestad en un vaso de agua*; 17:00etan Leidor antzokian Aragoiko Titiriteros de Bindefar taldearen *No nos moveran* eta 18:30ean Topic-en Kataluniar Fares brothers i cia taldearen *El rey de la casa*.

Erakusketak

■ **Tolosa.** Ignacio Garciaen margolanak ikusgai Itaie tabernan.
■ **Tolosa.** *Tolosarra angularralfiaki* Elolaren argazki erakusketa Beti Alai tabernan.

Deialdiak

■ **Tolosa.** *Emakumeak eta migrazioak* komiki lehiaketa. Lanak hilaren 30erako entregatu behar dira Tolosaldea Garatzeneko Inmigratio Sailean (943 654501).
Abenduaren 13an BEC-era Bertso-lari Txapelketa Nagusiko finalera joateko autobusa antolatu du Galtzaundik. Izen-ematea, egoitzan 9 eurotan (ez bazkideek, 12 euro).

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

Eguberrien atarikoak martxan



Musika Eskolako gazteek jarri zioten musika Eguberrietako argiak pizteko ekitaldiari. IMANOL GARCIA



Gaztelako Atean aingerutxoak argitu zuten; honekin batera herri osoko argiak piztu ziren. I. GARCIA

Tolosa » Atzotik Eguberrietako argiak piztuta daude herriko kaleetan; Tolargik egin du instalazioa.

ERREDAKZIOA

Gaztelako Atea Eguberrietako argiak pizteko ekitaldiaren eszenatiko izan da, beste urte batez. Triangulo plazan kokatuta dagoen atearen bueltan bildu ziren atzokoan hainbat udal ordezkari etengailuaren botoia zapaltzeko; bertan izan zen, halaber Musika Eskolako musika bandagaztea. Azken hauek arduratu ziren ekitaldiari musika jartzeaz.

18:00etan puntuan Tolosako argi guztiak piztu ziren. Olatz Peonek hainbat argibide eman zituen: «Tolargi arduratzen da instalazioaz, beste parte bat beste enpresa batek egiten du; Alde Zaharreko apaingarrien kargu, berriz bertako dendariak egiten dira». Zentzu honetan Peonek «Tolargiren lana eskertu» zuen, euren esfortzurik gabe «gastuak handiagoak izango baitziren». Halaber, kontsumo ba-

juko bonbilak erabiltzen dituztenetik kontsumo %78 murriztu da.

Iazko aurrekontuaren antzekoa izan dutela argitu dute Tolargitik, guztira 28.000 eurokoa izango delarik. «San Frantzisko ibiltokian argi gehiago jarri dira, gainontzean iaz jarritako argi berberak dira».

Tolosako landa auzotan ere jarritzen dituzte argiak, Aldaban, Urkizu, Bedaion, esaterako. Montezkuen, lehen aldiz jarri dute.

Trena, martxan

«Piztu dituzte jada argiak!». Komunikabideetan zabalzen ari dira egunotan era hauetako albisteak herri eta hiri desberdinei buruz ari direnean. Askotan, gainera merkatariek ere hartzen dute parte pizte ekitaldian. Baina mesede egiten al dio herriari argi hauek pizteak? Saltokietan ere pasa den hiletik ikus daitezke turroi eta polboroi aukera zabala. Eta zer diozue telebistaz? Gabonetako mezuak zabalzen aspaldi hasi ziren.

Oraindik ere turroia jaten haste-ko hiru aste geratzen dira baina Eguberrietako kontsumismoaren trenea geltokitik ateratu da. Igo ala ez, norberaren aukera izango da hori.

A Agurrak



Urte askoan!

Aimar Garcia Murillo (Tolosa).

Zure 4. urtebetetzean muxu handi bat aitaixo, amatxo eta Hegoirien partetik.



Urte askoan!

Leire Apeztekoa Muñagorri

(Tolosa). Zorion sorgia! Ondo ondo pasa zure 4. urtebetetze egunean, etxekoan partetik.

